

/2021 FORU DEKRETUA, aren(e)koa, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua. Foru dekretu horren bidez arautu zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura.

ZIOEN AZALPENA

Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoei dagozkien lanpostuak nola bete arautzen du, baita lanpostu horiek betetzeko erregelamenduzko araubidea jaso ere, zentzu zabalean hartuta; hau da, ez da behin betiko destinoa lortzera mugatzen, baizik eta ikasturte baterako edo zerbitzu-eginkizunetan emandako behin-behineko destinoak diren kasuetara ere iristen da.

Indarrean sartu zenetik gaur arte foru dekretu hori aplikatzean izan den esperientziak erakutsi du apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren erregulazioko eta garapeneko zenbait elementu berrikusi direla eta haietan komeni dela hobekuntzak egitea.

Proiektuak eta programak gauzatzeko zerbitzu-eginkizunen arloan (2. artikulua), azpimarratu beharrekoa da proiektu eta programa horiek aski heterogeneoak direla eta horrek haien helburuak barreiatu dituela eta, ondorioz, hezkuntza sistemako hobetzeko eraginkortasun gutxikoak gertatu direla. Arrazoi hori dela kausa, aurreikuspen hau sartu da: Hezkuntza Departamentuak, deialdiak egin baino lehenago, ezarri beharko du proiektu eta programa horiekin zer arlo estrategiko sustatu nahi den eta ez ditu deialdira aterako arlo horiekin bat ez

datozenak. Horretaz gainera, praktiketako funtzionarioek ere deialdi hauetan parte hartzen ahalko dute. Zerbitzu-eginkizunak emanen zaizkie baldin eta zerbitzu-eginkizun horien ondorioen datan karrerako funtzionario izaera eskuratua badute. Bestalde, gerora sortutako arrazoiengatik zerbitzu-eginkizunak bukatzeko prozedura hobetzen da. Zerbitzu-eginkizun horien iraupenari dagokionez, oro har, orain arte bezala gehienez ere bi ikasturtekoa izanen da. Hala ere, bi urte baino gehiagoko proiektuak edo programak izan daitezkeenez, proiektu edo programa jakin batzuk egin behar direnean gehienez ere hiru ikasturte bitartekoak izan daitezke, salbuespenez eta arrazoituz.

Irakasleentzako laguntza zentroetako eta baliabide zentroetako zerbitzu-eginkizunen arloan (3. artikulua), praktikan dauden langile funtzionarioendako aurreko paragrafoan egin den aurreikuspen bera bildu da eta argitu dira, orobat, behin betiko destinoa galtzeko baldintzak, zerbitzu-eginkizunak bigarren aldi baterako lortzen direnean, eta, zerbitzu-eginkizunak bukatzen direnean, lekualdatze lehiaketetan parte hartzeko baldintzak. Bigarren alderdi honi dagokionez, 7.2 artikulua aldatu da eta hartan sartu destinoa galtzeko aukera, herria edo eskualdea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea berekin dutenen artean.

"Beste zerbitzu-eginkizun batzuk" izeneko 4. artikulua aldatzen da. Han araututako alderdi batzuk argitu dira, esaterako, toki-korporazioko kidea izateagatikoa, eta ikaste-txeak sortzea edo ikasketa berriak ezartzekoa.

Halaber, 6. artikuluan arautzen da nola hartu behar duten parte lekualdatze lehiaketan behin-behineko destinoarekin eta praktiketan dauden irakasle funtzionarioek. Bigarren kasu honetan bada berritasun bat: haien egoera berdinduko da beren promozioko lankideekin batera praktikak egitea galarazten dien aparteko inguruabar bat dutenean, lehen behin betiko destinoa lortzeko dituzten aukerei dagokienez.

Artikulu horretan berean ezabatu da 2. apartatua, foru dekretua onetsi zenetik hona pasa den denboran eraginkortasuna galtzeagatik. Izan ere, apartatu horretan ezarritakoa aplikagarri zitzaien irakasleek jadanik behin betiko destinoa lortua dute.

10. eta 11. artikulua eta lehen xedapen iragankorra aldatzeak xede hau du: atzerriko hizkuntzak ikasteko programen garapenari eta ezarpenari jarraipena ematea estatuaren eskumeneko oinarritzko araudi-esparruaren barnean. Araudi horrek ez du irakaskuntzako funtzio publikoan sartzen uzten atzerriko hizkuntzen ezagutza egiaztatuz. Hori dela eta, foru dekretuan aurreikusitako araubide iragankorra eguneratu behar da, programa horiek behar dituzten irakasleen beharrak asebetetzeko. Aldaketak bi alderdi hauetan oinarritzen dira: bata, lehen xedapen iragankorrean aurreikusitako egiaztagiri iragankorraren balioaldia luzatzen da 2023-2024 ikasturtearen bukaeraraino, eta, bestea, B2 mailako hizkuntza tituluak izaera iragankorra galtzen du, eta hizkuntza-ezagutzako goragoko maileri dagokienez, haiekiko subsidiaritasuna mantentzen du.

Aipatutako aldaketa horiez gainera, bi xedapen gehigarri sartu dira foru dekretu honetan. Bata, hezkuntza orientazioaren antolaketari dagokiona, beharrezkotzat jotzen baita

urriaren 29ko 66/2010 Foru Dekretua aldatzea (foru dekretu horren bidez arautu zen Nafarroako Foru Komunitateko ikaste-txeetan hezkuntza- eta lanbide-orientabidea), orientazioaren antolaketa une oro ezarritako ikastetxe sarearen antolamenduarekin koherentea izan dadin.

Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren leko 39/2015 Legearen 16.5 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoaren babesean, beharrezkotzat jotzen da Hezkuntza Departamentuaren eskumeneko prozeduren tramitazio elektronikoa gaur egun dauden aurreikuspenak osatzea.

Horrenbestez, Hezkuntzako kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluarekin bat etorrita, eta Nafarroako Gobernuak 2021eko aren (e)ko bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horren bidez arautu zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura.

Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duena, honelaxe aldatzen da:

Bat. 2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"2. artikulua. Lanpostuak betetzea berariazko proiektu edo programetan, zerbitzu-eginkizunen araubidean.

1. Oro har, Hezkuntza Departamentuak deialdiak iragarriko ditu ikastetxean hastear diren edo hasi berriak diren berariazko programa edo proiektuak aztertu edo ezartzeko lanpostuak zerbitzu-eginkizunen araubidean betetzeko.

Aldez aurretik, gaian eskumena duten organoek zehaztuko dituzte Hezkuntza Departamentuak sustatu nahi dituen arlo estrategikoak, artikulua honetan aipatzen diren proiektu edo programa berariazkoak ezartzearen bidez, eta ez da deialdirik eginen baldin eta proiektu edo programa horiek ez badatoz bat arlo estrategiko horien sustapenarekin.

2. Proiektu edo programa hauei dagozkien lanpostuak zerbitzu-eginkizunen araubidean hornitzen ahalko dira, ezartzen diren ikastetxean, artikulua honetan ezarritakoarekin bat, eskuarki eta gehienez ere bi ikasturtetan. Deialdian gehienez ere hiru ikasturterako izan daitezkeela ezarriko da, gaian eskumena duen zuzendaritza nagusiak aldez aurretik motibaturik, salbuespeneko izaeraz eta programa edo proiektu zehatzak egiteko baldin badira.

Gehienezko epe hori iraganik, ezinezkoa izanen da ikastetxe berean ezaugarri bereko edo antzeko proiektu edo programa berariazko baten deialdirik egitea.

3. Eskumena duen organoak proposaturik eginen dira deialdiak, proiektu edo programa zein gairekin loturik dagoen, haren arabera. Gutxienez ere ondoko alderdiak bete beharko dituzte:

- 3.1. Berariazko proiektu edo programaren justifikazioa eta zein ikastetxetan ezarriko den, 1. apartatuan aipatzen diren arlo estrategikoei dagokienez.
- 3.2. Lanpostuaren berariazko ezaugarriak.
- 3.3. Proiektu bakoitzerako emanen diren zerbitzu-eginkizunen gehienezko kopurua.
- 3.4. Deialdian parte hartzeko baldintzak: kidegoa, espezialitatea edo espezialitateak eta hizkuntza, eta hala behar bada, hizkuntza-eskakizuna; Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko funtzionario edo lan-kontratudun finko izatea; eta zerbitzu-eginkizunak hasten diren ikasturteko irailaren batean jardunean izatea.
- 3.5. Hautapen sistema ondokoa izanen da: eskuratu nahi den lanpostuaren eginkizunei lotutako memoria edo proiektuaren aurkezpena edo defentsa. Baztergarria izanen da hari esleitutako puntuazioaren erdia gainditzen ez dutenentzat.
- 3.6. Hautapen organoak hiru kidek osatuko dituzte, deialdi berean izendaturikoak edo deialdian adierazten den epe eta prozeduraren bidez izendaturikoak. Horietako bi Hezkuntza Departamentuan gaian eskumena duen zuzendaritza nagusiak proposatuko ditu eta, beste bat, Langile Irakasleen Batzordeak.

4. Artikulu honetan aipatzen diren zerbitzu-eginkizunak gauzatzeko nahitaezkoa izanen da deialdian sartu den ikastetxean dagokion espezialitate eta hizkuntza eta, hala behar denean, hizkuntza-eskakizunean, lanpostu

huts bat egotea, behin aurreikusitako premiak zehaztu direnean, ikasturte bakoitzerako hezkuntza plangintzarekin bat.

5. Artikulu honen babesean emandako zerbitzu-eginkizunak bukatu egingen dira ondoko kausetakoren bat tarteko:

- a) Aldi jakin baterako eman zirelako eta aldi hori bukatu delako.
- b) Zentroa kentzeagatik edo aldatzeagatik, kentze edo aldaketa horrek ezinezkoa egiten badu ukitutako zerbitzu-eginkizunei segida ematea.
- c) Interesdunak berariaz uko egiteagatik.
- d) Gerora sortutako arrazoiak, honako hauen ondorioz: lanpostua betetzeko gaitasun edo egokitasun falta, langilearen errendimendu eskasak agerian uzten du-elako ezin dituela emandako eginkizunak eraginkortasunez bete, hala nola haien edukia aldatu delako.

Deialdia proposatu duen organoak txosten arrazoitu baten bidez eskatuko dio Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariari hasiera eman diezaiola zerbitzu-eginkizunak bukatzeko prozedurari.

Prozedurari hasiera emanen zaio Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen bidez. Ebazpen hori igorriko zaio deialdia proposatu duen organoari, egokitze jotako jarduketak egin ditzan, interesdunari entzunaldia ematea barne, ikastetxeko zuzendaritzari eta Langile Irakasleen Batzordeari.

Bidezko jarduketak egin ondotik, deialdia proposatu duen organoak betetako lanpostuari atxikitako langilearen gaitasuna eta egokitzapena baloratzeko txostena egingen du eta Araubide Juridikoaren Zerbitzura igorriko du.

Txosten hori negatiboa bada, zerbitzu-eginkizunei bukaera emanen zaie, Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuaren ebazpen baten bidez.

- e) Jarduneko zerbitzua ez den zeinahi beste egoera administratibotara pasatzea.
- f) Administrazioan beste lanpostu baterako izendatua izatea.
- g) Langileari beste zerbitzu-eginkizun bat ematea, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen barnean zein beste edozein administrazio publikotan.
- h) Zerbitzu-eginkizunen kontzesioa arrazoitu zuen beharra desagertzea, ikastetxean behin betiko destinoa duten irakasleek lanpostu hori bete dutelako.

6. Salbu eta behar bezala justifikaturik dauden kasuetan, zerbitzu-eginkizuna modu aurreratuan bukatzen denean aurreko apartatuko b eta c letretan aurreikusitako kasuen ondorioz, bukaera horrek bat egin beharko du ikasturtearen bukaerarekin.

7. Bete gabeko lanpostuak deialdi bidez horni daitezke, behin bakarrik eta zerbitzu-eginkizunen araubidean, proiektuaren edo programaren xede den gaian eskumena duen organoak egindako proposamen arrazoituaren bidez, baldin eta interesdunak deialdiaren baldintzak betetzen baditu eta iraupena ikasturte batekoa baldin bada".

Bi. 3. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"3. artikulua. Lanpostuak betetzea zerbitzu-eginkizunen araubidean Hezkuntza Departamentuaren mendeko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan eta Baliabide Zentroetan.

1. Hezkuntza Departamentuak merezimendu lehiaketan deialdiak eginen ditu, zerbitzu-eginkizunen araubidean hornitzeko Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZk) aholkulari eta zuzendarien lanpostuak eta Nafarroako Hezkuntza Beretako Baliabideen Zentroko (NHBBZ), Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroko (EIBZ) eta beste baliabide zentro batzuetako irakasleen lanpostuak.

2. Gaian eskumena duen organoak proposaturik eginen dira deialdiak, ikastetxea zein gairekin loturik dagoen haren arabera. Gutxienez ere ondoko alderdiak bete beharko ditu:

2.1. Eskaintzen diren lanpostuen kopurua eta ezau-garriak.

2.2. Deialdian parte hartzeko baldintzak: horien artean sartuko dira kidegoa, espezialitatea edo espezialitateak eta hizkuntza, eta hala behar bada, hizkuntza-eskaki-zuna; Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko funtzionario edo lan-kontratadun finko izatea; eta zerbitzu-eginkizunak hasten diren ikasturteko irailaren batean jardunean izatea.

2.3. Hautapen sistema. Bi zati izanen ditu eta balarazioa %50ean haztatuko da:

a) Lehen atalean eskuratu nahi den lanpostuaren eginkizunei lotutako memoria edo proiektua aurkeztu edo defendatu beharko da. Baztergarria izanen da zati honi esleitutako puntuazioaren erdia gainditzen ez dutenendako.

b) Bigarren atalean deialdian zehazten diren merezimenduak baloratuko dira. Horien artean dago deialdian sartzeko baldintza den irakasleen kidegoko edo kidegoetako karrerako funtzionario gisa izandako antzintasuna, baremoaren %50eko puntuazioarekin (hau da, puntuazio osoaren %25), eta deialdiaren xederako egoiak diren beste merezimendu batzuk, baremoaren gainerako %50arekin baloratuko direnak (hau da, puntuazio osoaren %25).

2.4. Hautapen organoak hiru kidek osatuko dituzte, deialdi berean izendaturikoak edo deialdian adierazten den epe eta prozeduraren bidez izendaturikoak. Horietako bi Hezkuntza Departamentuan gaian eskumena duen zuzendaritza nagusiak proposatuko ditu eta, beste bat, Langile Irakasleen Batzordeak. Ordezkoak ere izenda daitezke.

3. Zerbitzu-eginkizun hauek hasiera batean bi ikasturte osoko iraupena izanen dute. Behin lehen ikasturtea bukatuta eta, bigarren ikasturteko martxoan baino lehenago, irakasle interesdunek laneko memoria aurkeztu beharko dute, dagozkien deialdiek zehazten dutenarekin bat. Memoriaren ebaluazio positiboak ahalbidetuko du zerbitzuen eginkizuna luzatu ahal izatea hiru ikasturterako.

4. Aurreko apartatuan aipatzen den bost urteko aldia bukatu ondoren, baliabide zentro edo irakasleei laguntzeko zentro berean lanpostuaz bigarren aldiz jabetzeak deialdi bidez, aurrez behin betikotasunez betetzen zuen irakasle lanpostuaren erreserba bukatzea ekarriko du.

5. Lanpostuaren erreserba bukatu ondoren eta irakasleak, zerbitzu-eginkizunen araubidean, lanean segitzen duen bitartean artikulua honetan aipatzen diren ikastetxeetako ba-

tean deialdi bidez erdietsitako lanpostuan, Hezkuntza Departamentuak deitutako lekualdatze lehiaketetan bere borondatez parte hartzen ahalko du. Hala egiten badu lanpostu bat esleitu tuko zaio lekualdatze lehiaketa horietan eta horrek berekin ekarriko du zerbitzu-eginkizunei automatikoki uko egitea lekualdatze lehiaketan esleitutako destinoaren jabetza hartzen den egunean.

Artikulu honetan aipatzen diren zentroetan zerbitzu-eginkizunak bukatu ondoren, irakasle horiek nahitaez parte hartu beharko dute deitutako lekualdatze lehiaketetan eta destinoa lortzeko lehentasunezko eskubidea izanen dute beren azken behin betiko destinoa izan zuten herrian edo eskualdean.

6. Artikulu honen babesean emandako zerbitzu-eginkizunak bukatuko dira, horretaz gainera, 2.5. artikuluan ezarritako arrazoietakoren bat dela kausa, eta 2.6. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

7. Merezimendu lehiaketa bidez bete gabeko lanpostuak behin bakarrik bete daitezke zerbitzu-eginkizunen araubidean, proiektuaren edo programaren xede den gaian eskumena duen organoak egindako proposamen arrazoituaren ondoren, baldin eta interesdunak deialdiaren baldintzak betetzen baditu eta iraupena ikasturte batekoa baldin bada".

Hiru. 4. artikuluko lehen eta bigarren apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

"1. Hezkuntza Departamentuak zerbitzu-eginkizunak esleitu ahal izanen dizkie organikoki eta funtzionalki Departamentu horren mendeko diren irakasle funtzionarioei, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006ko Lege Organikoan ezarri-

tako irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko estatutu mailako lekualdatze lehiaketa eta haiek bete beharreko lanpostuak betetzeko beste prozedura batzuk arautzen dituen urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuan aurreikusitako zerbitzu eginkizunak deusetan kaltetu gabe, ondoko kasuetan, besteak beste:

- a) Langile funtzionarioen osasun arrazoiengatik.
- b) Toki-korporazio bateko kide izateagatik ikastetxe batean irakasteko, toki-korporazio horretako kide den udalerrian edo inguruko udalerriren batean lanpostu hutsa dagoelako.
- c) Ikastetxeetan edo baliabide zentroetan irakaskuntzako zuzendaritza karguetan aritzeko.
- d) Berriki sortutako ikastetxeetan edo berriki ezarritako ikasketetan.
- e) Atzerriko hizkuntzak ikasteko programak dituzten ikastetxeetan eta Musikako Goi Mailako Kontserbatorioan, betiere ez dagoenean aski irakasle ikastetxean behin betiko destinoarekin, dagozkien ikasketak eman ahal izateko.
- f) Seme edo alaba adingabea zaintzeagatik eta salbuespeneko inguruabarrengatik.
- g) Gaiaren araberako organo eskudunak txosten bidez behar bezala justifikaturiko bestelako langile premia bereziei erantzuteko.

2. Artikulu honetan aipatzen diren zerbitzu-eginkizunak ikasturte baterako izanen dira, c) apartatuan aurreikusitakoak izan ezik; azken hauek beren berariazko araudian xedatutakoa beteko dute."

Lau. 6. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du.

"6. artikulua. Behin-behineko destinoa duten eta praktiketan dauden irakasle funtzionarioek lekualdatze lehiaketetan parte-hartzea.

1. Kasuan kasuko deialdietan zehaztuko da lehen behin betiko destinoa eskuratu gabe behin-behineko destinoa duten irakasle funtzionarioak nahitaez hartu behar duela parte gainditu zuen hautapen prozedurako espezialitate eta hizkuntza berarekin Hezkuntza Departamentuak lanpostuak betetzeko deitzen dituen prozeduretan.

2. Praktiketan izendatutako langile funtzionarioek, praktikak hurrengo ikasturtera luzatu badituzte, izendatu eta deitzen diren lehen lekualdatze lehiaketan hartu beharko dute parte eta, hala behar denean, lehiaketa horretan esleitutako destinoan egin beharko dituzte praktikak. Destino hori behin betiko bihurtuko da karrerako funtzionario izendatzen dituztenean".

Bost. 7. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze lehiaketa eta haiek bete beharreko lanpostuak betetzeko beste prozedura batzuk arautzen dituen urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuaren 16.1 a) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, lanpostuak kentzeko ondoko kasuak hartuko dira aintzat:

a) Borondatezkoa, interesdunak hala eskatuta, Hezkuntzako Administrazioak zehazturiko planifikazioarekin bat eta betiere lanpostuak kentzea espresuki ebazpen formal baten bidez egiten bada.

b) Nahitaezkoa, hezkuntza plangintzaren ondorioz edo hezkuntza sisteman aldaketak egitearen ondorioz hainbat ikastetxe bakar batean fusionatzen direnean, ikastetxeak banatzen direnean edo ikastetxe bat ezabatzen denean eta behin betiko destinoa duten karrerako funtzionarioei eragiten dienean.

2. Foru dekretu honen 1. eta 2. eranskin gisa onestea Nafarroako Foru Komunitateko zonifikazioa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze lehiaketa eta haiek bete beharreko lanpostuak betetzeko beste prozedura batzuk arautzen dituen urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuaren 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitako egoeretan dauden irakasleek lehentasunezko eskubidea erabil dezaten.

Hezkuntza Departamentuak onetsitako lekualdatze lehiaketek eguneratuko dituzte foru dekretu honetako 1. eta 2. eranskinak, ikastetxeak sortu, aldatu edo kentzeagatik".

Sei. 10. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"1. Ikasturte bakoitzaren hasierarako zehaztuko diren lanpostuak betetzeko, beren ikastetxetik desplazatuak izan diren unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioak, behin betiko destinoa dutenak, eta zerbitzu eginkizunak eskaini zaizkienak, titular diren espezialitateei dagozkien lanpostuen destinoa hautatuko dute.

Bestalde, behin-behineko destinoa duten langile funtzionarioek, hots, beren lehen behin betiko destinoa lortu ez dutenek, eta praktiketako funtzionarioek beren oposizioko espezialitatean eta hizkuntzan aukeratuko dute destinoa, dela

kidegoko lanpostu hutsetan edo aldi baterako ordezkapenetan edo, besterik bada, kidego bereko edo beste irakasle kidego batzuetako antzeko espezialitateetan, betiere errespetatuz irakasleek behar den espezialitatean eta hizkuntzan duten lehenentasuna.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa galarazi gabe, ingeles, frantses eta aleman espezialitateetako langile funtzionarioei beren espezialitateko hizkuntzari dagokion hizkuntza eskakizunarekin zehaztuko diren beste espezialitate batzuetako lanpostuak esleitu ahal izanen zaizkie atzerriko hizkuntzen ikastetxeetan, betiere, dagokion espezialitateko titularrak badira edo espezialitatea eskuratu badute eta dagokion hizkuntzaren egiaztatzea baldin badute.

3. Ikasturte bakoitzerako zehazten diren atzerriko hizkuntzako (frantsesa, ingelesa, alemana) eskakizuna duten irakaskuntzako espezialitateei dagozkien lanpostuak aldi baterako eta behin-behinekotasunez betetzeko, 9. artikuluan eta lehen xedapen iragankorreko 1. apartatuan espezialitate eta hizkuntza bakoitzerako aurreikusitako egiaztatzearen ordez, onartu egingen dira, une bakoitzean, Irakasleek frogatu ditzaketan berariazko eskakizunak zehaztu eta haiek egiaztatze prozedura ezartzen duen Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 11ko 32/2013 Foru Aginduaren I. eranskinean jasotako atzerriko hizkuntzaren titulazioak edo egiaztatze PI, PF eta PALE eskakizunetarako".

Zazpi. 11. artikulua izena eta bigarren apartatua aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

"11. artikulua. Atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuak aukeratzeko hurrenkera.

2. Aurreko multzoetako bakoitzaren barnean, lehentasuna izanen dute 9. artikuluko egiaztagiria dutenek eta lehen xedapen gehigarrian ageri den atzerriko hizkuntzako egiaztagiria dutenek hizkuntza-maila baxuagoa dutenen aldean".

Zortzi. Lehen xedapen iragankorra aldatzen da, eta testu hau izanen du.

"Lehen xedapen iragankorra. Atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuak aldi baterako betetzeko baldintzak.

Atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuak aldi baterako betetzeko atzerriko hizkuntzaren egiaztagiri iragankorra.

a) Hezkuntza Departamentuak egiaztagiri iragankor bat emanen die 9. artikuluan ezarritako baldintzak bete ezinik irakaskuntzan ari daitezkeenei, behin-behinekotasunez edo aldi baterako kontratazio bidez, atzerriko hizkuntzako eskakizuna duten lanpostuetan.

b) Egiaztagiri iragankor hori erdiesteko, nahitaezkoa izanen da I, F edo ALE eskakizunak egiaztatzen dituen titulazioren bat, Irakasleek frogatu ditzaketen berariazko eskakizunak zehaztu eta haiek egiaztatzeko prozedura ezartzen duen Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 11ko 32/2013 Foru Aginduan aurreikusitakoarekin bat. Gainera, ondoko eskakizunetako bat ere bete beharko du:

b.1) Zerbitzuak eman izana bi ikasturte osotan (ondorio hauetarako, ikasturte oso bakoitzeko 10 hilabete konputatuko dira) edo 20 hilabetetan, 2007-2008 ikasturteetik aurrera, Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako

atzerriko hizkuntzako kotutore gisa, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeetan. Zerbitzu hauek zerbitzuak eman diren ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiri bidez egiaztatuko dira, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren oniritziarekin.

b.2) Prestakuntza planetan parte hartu izana egiaztatzen duen ziurtagiria, hizkuntzen gaian eskumena duen Zerbitzuak emana, aurkeztea, xedapen iragankor honetan aipatzen den egiaztagiriri iragankorra eskuratzearen ondorioetarako.

c) Atzerriko hizkuntza baten gaitasunaren egiaztagiriri iragankorra eskuratuko da Irakasleek frogatu ditzaketen berariazko eskakizunak zehaztu eta haiek egiaztatzeko prozedura ezartzen duen Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 11ko 32/2013 Foru Aginduan aurreikusitako prozedurari jarraikiz. Egiaztagiria luzatzearen ardura batzorde berrarena izanen da. Egiaztagiriri iragankorra interesdunen espediente pertsonalean adieraziko da, PI(T), PF(T) eta PALE(T) aipamenarekin.

d) Xedapen honetan aipatzen den atzerriko hizkuntzaren gaitasunaren egiaztagiriri iragankorra 2024ko abuztuaren 31n iraungiko dira, eta egun horretatik aitzina ez da indarrean izanen.

2024-2025 ikasturtea prestatzeko jarduketan artean ez da aintzat hartuko egiaztagiriri iragankorra.

Egiaztagiriri iraunkorra erdietsi duten irakasleek I, F edo ALE egiaztagiria automatikoki mantenduko dute 2024ko irailaren 1etik aitzina, foru dekretu honetako 10. artikulua 3. apartatuan xedatutakoaren arabera.

e) Xedapen iragankor honetan aipatzen den aldiari dagokionez, egiaztagiri iragankorra eskuratzen duten irakasleek destinoa behin-behinekoz edo aldi baterako hautatuko dute, 9. artikuluan aurreikusitako egiaztagiria duten langileen baldintza beretan."

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan hezkuntza-eta lanbide-orientabidea arautzen duen urriaren 29ko 66/2010 Foru Dekretuaren 11.1 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"1. Hezkuntza orientazioa antolatzeke, Bigarren Hezkuntzako institutuen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuen jarduketa eremua Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan hezkuntza- eta lanbide-orientazioa arautzen duen arautegian ezarritakoa izanen da.

Bigarrena. Hezkuntza Departamentuaren eskumena diren prozeduren tramitazio elektronikoa.

1.- Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari ahalmena ematen zaio irakasleei eta irakasle ez direnei zuzendutako jarduketetan tramitazio elektronikoa osoa eskatzeko hautapen prozedura hauetan: sartu eta bertara igotzekoak, espezialitate berriak eskuratzekoak, lanpostuak hornitzekoak, hezkuntza-eskakizunak egiaztatzekeak, aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak eratzekoak, lanpostuak edo destinoak hautatzekoak, edo antzeko ezaugarriak dituzten jarduketak.

2.- Era berean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari ahalmena ematen zaio ikasteko beka eta laguntzetarako deialdietan tramitazio elektronikoa eskatzeko.

3.- Halaber, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari ahalmena ematen zaio interesdunei eskatzeko beren irakasleen eta irakasle ez direnen administrazio- eta lan-kontratuaren sinadura elektronikoa.

4.- Hezkuntzako kontseilariari baimena ematen zaio tramitazio elektronikoa eskatuko den prozedurak eguneratzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehenena. Erregelamendu bidez garatzea.

Hezkuntzako kontseilariari baimena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean,